

IRAGARKIA

29. ALDIZKARIA - 2026ko otsailaren 10a

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.7. BESTELAKOAK

6/2026 EBAZPENA, urtarrilaren 22koa, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Foru Komunitatean funts publikoak jasotzen dituzten Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan haurrak onartzeko prozesua, 2026-2027 ikasturterako.

Martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuak arautzen du Haur Hezkuntzako lehen zikloa Nafarroako Foru Komunitatean, eta haren 12 artikuluko 1. atalean ezartzen denez, Hezkuntza Departamentuak arautuko du ikasleak nola onartu funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetan, baldintza beretan sartzeko aukera izan dezaten.

Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 1eko 16/2024 Foru Aginduaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean funts publikoak jasotzen dituzten Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan haurrak onartzeko prozesua arautzen da.

Indarrean dagoen araudia aplikatuz, eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak eskolatzearen arloan ezarritako esparruaren barnean, bidezko da Nafarroako Foru Komunitatean funts publikoak jasotzen dituzten Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan 2026-2027 ikasturterako haurrak onartzeko prozesua onestea.

Haur Eskolen Zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena aurkeztu du aipatu onarpen prozesua 2026-2027 ikasturterako onesteari buruz.

Erabiliz azaroaren 15eko 245/2023 Foru Dekretuak emandako ahalmenak (foru dekretu horrek ezarri zuen Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa),

EBAZTEN DUT:

1. Onestea Nafarroako Foru Komunitatean funts publikoak jasotzen dituzten Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan haurrak onartzeko prozesua, 2026-2027 ikasturterako, ebazpen honen eranskinetan jasotakoarekin bat.

2. Ebazpen hau eta haren eranskinak igortzea Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzura, Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzura, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziora,

Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Atalera eta Haur Eskolen eta Landa Eskolen Atalera, behar diren ondorioak izan ditzaten.

3. Ebazpen honen eta haren eranskinen aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke, Hezkuntzako kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

4. Ebazpen hau eta eranskinak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 22an.–Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusia, Gil Sevillano González.

I. ERANSKINA.–NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN FUNTS PUBLIKOAK JASOTZEN DITUZTEN HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO IKASTETXEETAN 2026-2027 IKASTURTERAKO HAURRAK ONARTZEKO PROZESUAREN JARRAIBIDEAK

2026-2027 ikasturtean, Nafarroako Foru Komunitatean funts publikoak jasotzen dituzten Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan haurrak onartzeko prozesuak men eginen dio, oro har, Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 1eko 16/2024 Foru Aginduan xedatutakoari, eta, laburpen gisa, jarraian azalduko diren nondik norakoei, zeinak loturik baitaude aipatu foru agindua aplikatzearen indarrez eragina duten artikuluei edo xedapen gehigarriei.

1.–Ikaspostuen hartzaileak (2. artikulua).

1.1. Ikaspostua eskatzen ahalko dute 2024an eta 2025ean eta eskaera aurkezteko unean 2026an jaiotako haurren gurasoek edo legezko ordezkariak.

Eskaera aurkezten den unean jaio ez diren haurrentzat ere eskatzen ahalko da ikaspostua, baldin eta 2026ko lehen seihilekoan jaiotzea aurreikusten bada. Horretarako, hori justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da (txosten medikoa). Onarpen prozesuan jarraitzeko, haurra maiatzaren 11ra arte (egun hori barne) jaio beharko da, eta dagokion jaiotza-ziurtagiria aurkeztu beharko da 2026ko maiatzaren 12ko 23:59ak baino lehen.

Urtebetetik beherakoentzako instalaziorik ez duten ikastetxeetan, ikaspostua eskatzen ahalko da 2026ko irailaren 1ean jada urtebete duten haurrentzat bakar-bakarrik.

1.2. Ebazpen honetan ezarritako prozedura aplikatuko zaie 2025-2026 ikasturtean ikastetxe batean matrikulaturik ez dauden haurrei, bai eta, eskolaturik egonda, Haur Hezkuntzako lehen zikloko beste ikastetxe batera aldatzea eskatzen dutenei ere. Ikastetxe berean hizkuntza eredia edo eskolaldi mota aldatzeko, familiek ez dute haurrak onartzeko prozesuan parte hartu behar.

1.3. Ikaspostuen eskabidea eta esleipena eginen dira ikaspostua eskuratu nahi duen haurraren jaiotza dataren arabera:

–0 urte: 2025eko irailaren 2tik 2026ko maiatzaren 11ra bitartean (biak barne) jaiotako haurrak.

–1 urte: 2024ko irailaren 2tik 2025eko irailaren 1era bitartean (biak barne) jaiotako haurrak.

–2 urte: 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko irailaren 1era arte (biak barne) jaiotako haurrak.

1.4. Ikasleak onartzeko prozesuari lotutako epeei eta datei dagokienez, ebazpen honen II. eranskinean ezarritakoari jarraikiko zaio.

2.–Hezkuntza Departamentuak hizkuntza ereduak eta unitateak baimentzea (5. artikulua).

2.1. Aipatu artikulua 1. puntuan jasotakoaren arabera, ikastetxeen titularrak diren toki-erakundeek Hezkuntza Departamentuari igorriko diote 2026-2027 ikasturtean ikastetxe horretarako dagoen aurreikuspena, hots, Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe bakoitzean aurreikusten diren unitate kopurua eta eskainiko diren hizkuntza ereduak, bai eta proposamen horren justifikazioa ere. Aurreikuspen hori 2026ko otsailaren 13a baino lehenago igorriko da helbide honetara: seccion.escuelasinfantiles.escuelasrurales@navarra.es.

2.2. Hezkuntza Departamentuak aurreikusitako eskaintza baimendu beharko du, eskaerak aurkezteko epea hasi baino lehen.

3.–Onarpen prozesurako hautapen batzordea (8. artikulua).

3.1. Aipatu 8. artikulua 1. puntuan adierazten denaren arabera, erakunde titular bakoitzak hautapen batzorde bat izendatu beharko du, hiru kidez osatua, gutxienez: kideetako bi toki-erakundeko ordezkariak izanen dira, eta horietako bat arituko da buru; hirugarrena erakunde titularreko ikastetxeko edo ikastetxeetako ordezkari bat izanen da.

3.2. Hautapen batzordearen eginkizunak aipatu 8. artikulua horren 2. puntuan adierazitakoak izanen dira. f) apartatuan xedatutakoari jarraikiz, hautapen batzordeak 2026ko apirilaren 15a baino lehen bidaliko dio Hezkuntza Departamentuari behin-behineko lehen plangintzaren plantilla, taldeen, hizkuntza ereduaren, eskolaldi motaren eta eskaini beharreko lanpostu hutsen aurreikuspenarekin, aurreinskripzioko datuak kontuan hartuta.

Lehenengo matrikula epea agortu ondoren, onarpen prozesuaren jarraipena eta ondorengo behin-behineko onarpenak Educa kudeaketa-programaren bidez lortutako datuak erabiliz eginen dira.

Behin betiko plantilla ikasturtearen lehenengo astea pasata onetsiko da, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak ikastetxerako onartutako egutegiaren arabera, Educa kudeaketa-programaren bidez lortutako datuekin.

3.3. Proposatutako taldeak eta aipatu plantilla horietan ikastetxe bakoitzak eskainitako ikaspostu hutsen kopurua aldatzen ahalko dira, Hezkuntza Departamentuak horiek onesteko egiten duen berrikuspenaren arabera.

3.4. Ikasturteko lehen astean Educan agertzen diren matrikulak erreferentziazkoak izanen dira hezkuntza-errefortzuko langileei dagokien dirulaguntza esleitzeko. Ondorio horietarako, hezkuntza-laguntzako baliabide espezifikorik ez duten haurren matrikulak kontuan hartuko dira.

4.–Eskaerak aurkeztea (10. artikulua).

4.1. Eskaerak aurkezteko epea 2026ko otsailaren 23tik martxoaren 6ra artekoa izanen da, biak barne.

4.2. Haurrak onartzeko prozesu arruntean parte hartzeko eskaera telematikoki tramitatuko da Educa Ataria plataformaren bidez, eta guraso-ahala duten gurasoek edota haurraren legezko tutoretza duten pertsonak egin beharko dute.

4.3. Eskabide telematikoa izapidetzeko, eskatzaileak Educa Atarira jo behar du, eta hartan sartu Educako erabiltzaile-izena eta pasahitza erabiliz, ziurtagiri elektronikoa erabiliz edo cl@ve sistemako sarbideko kredentzialekin.

4.4. Familiek hala eskatzen badute, lehen aukera gisa hautatutako ikastetxeko erakunde titularren laguntza eskatzen ahalko dute eskaera izapidetzeko, eta, familiak eskatuz gero, baita aurkezteko ere, eskuordeturik. Horretarako, eskatzaileak ikastetxearen erakunde titularrak zehaztutako tokira joaten ahalko dira laguntza hori eskatzera.

4.5. Familiek eskaera aurrez aurre aurkeztuz gero, eskaera hori ereduari lotuko zaio (eredu hori nafarroa.eus atariaren izapideen katalogoan dago, bai eta entitate titular bakoitzaren webguneko fitxan ere).

4.6. Haur bakoitzeko eskaera bakar bat aurkezten ahalko da; behar bezala beteta beharko du eskaerak, eta sei aukera sartzen ahalko dira gehienez, ikastetxea, hizkuntza eredu eta eskolaldi mota adierazita. Ikastetxeek ez dute zertan udalerrri berean egon. Ikastetxe batean eskolaldi bat baino gehiago edo hizkuntza eredu bat baino gehiago badaude, horietako bakoitza aukera desberdin bat izanen da, eta eskatzaileek lehentasun ordena bat ezarri beharko dute.

4.7. Eskabidean paratutako datu horiek eskabideak aurkezteko epe arrunta bukatu arte aldatzen edo zuzentzen ahalko dira.

4.8. Eskaerak aurkezteko epea bukatu, ez da baremoan eragin dezakeen dokumentazio gehiago onartuko. Inola ere ez dira baloratzen ahalko eskaeran alegatu ez diren inguruabarrak.

4.9. Haurra onartzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar baimena ematea onartutako haurren zerrendetan eta itxaron-zerrendetan agertu beharreko datu pertsonalak argitaratzeko.

4.10. Eskabideak aurkezteari dagokionez, eskabidea baliozkotzat eta eraginkortzat joko da kasu hauetakoren batean baldin badago:

–Gurasoen edo legezko ordezkarien sinadurekin egindakoa.

–Haietako batek bakarrik egina bada, baldin eta laukitxo hau markatu badu: "Zin egiten dut gurasoak/tutoreak bat gatozela eskabide honekin".

–Haietako batek bakarrik egina bada, baldin eta laukitxo hau markatu badu: "Gurasoak/tutoreak banantze, dibortzio edo desadostasun egoeran gaudela deklaritzen dut, eta ebazpen judiziala edo indarra duen dokumentazioa aurkezten dut, ahalmena ematen didana nik neuk bakarrik aukeratzeko semearen edo alabaren ikastetxea". Horretaz gain, aipatu dokumentazioa aurkeztu beharko du eta hartatik ondorioztatu beharko da erabakia berari bakarrik dagokiola.

4.11. Telematika bidez egindako eskabideak baliozkotzat eta eraginkortzat jotzeko, izapidea burutu beharko da nahitaezko dokumentazio osoa erantsiz eta "Aurkeztu" botoia sakatuz.

5.–Dokumentazioa (10. artikulua, 16. artikulutik 26.era).

5.1. Aurkeztutako dokumentazio guztiak indarrean egon beharko du eskaerak aurkezteko epearen azken egunean.

5.2. Eskabidearekin batera, baloratzeko aurkeztu nahi den dokumentazioaz gain, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dira nahitaez:

–Gurasoen edo legezko ordezkarien NANaren, AIZren, pasaportearen edo agiri baliokidearen fotokopia;

–Familia liburuaren kopia edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein baliabide, familia lotura frogatzeko balio duena;

–Eskaera oraindik jaio ez den haur batentzako aurkezten bada, mediku-txosten bat erantsi behar da, aurreikusitako jaiotza-eguna (2026ko lehen seihilekoan) ziurtatzen duena. Adopzio edo harrera prozesuan dauden haurren kasuan, haurra noiz jaio den egiaztatzen duen agiria behar da. Onarpen prozesuan jarraitzeko, haurra maiatzaren 11ra arte (egun hori barne) jaio beharko da, eta dagokion jaiotza-ziurtagiria aurkeztu beharko da 2026ko maiatzaren 12ko 23:59ak baino lehen, lehen aukera gisa hautatutako ikastetxearen erakunde titularrak zehaztutako moduan.

5.3. Haurrak onartzeko irizpideak betetzen diren egiaztatzeko eta baloratzeko dokumentazioa dela-eta, Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 1eko 16/2024 Foru Aginduaren 16. artikulutik 26. artikulura bitartean xedatutakoari jarraituko zaio.

5.4. Eskaturiko dokumentazioa interesdunek berek aurkezten ahal dute edo Hezkuntza Departamentuari baimena ematen ahal diote datu horiek eskuratu eta kontsultatzeko. Honako datu hauek soilik kontsultatzen ahal ditu departamentuak:

–Familia ugariaren titulua.

–Familia gurasobakarraren titulua.

–Ikaspostua eskuratu nahi duen haurraren desgaitasunaren ziurtagiria.

–Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 2024ko ekitaldiko aitortpena.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 2024ko aitortpena bi gurasoek batera egin badute, aski da eskatzaileak emandako baimena.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 2024ko aitortpena modu bereizian egin bada, beharrezkoak dira bi gurasoen edo legezko tutoreen datuak eta baimen idatzia.

5.5. Gainerako dokumentazioa, edo kontsulta baimenduta ez duten datuei dagokien dokumentazioa, interesdunek aurkeztu beharko dute, balorazioa egin dadin:

a. Lehentasunezko irizpideak:

a.1) Anai edo arrebaren bat ikastetxe horretan matrikulatuta egotea (16. artikulua).

Ikastetxean anai-arrebak matrikulatuta egonez gero, horien kopurua edozein izanik ere, 3 puntu emanen zaizkio eskaerari.

Halaber, eta bat etorri Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 1eko 16/2024 Foru Aginduaren hirugarren xedapen gehigarriarekin, urte berean jaiotako anai-arreben eskaerarik egonez gero, haurretako bat onartzeak berekin ekarriko du gainerakoak ere onartzea.

Irizpide hau egiaztatzeko honako hauek aurkeztu beharko dira:

–Familia liburuaren kopia edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein bide, familia lotura frogatzeko balio duena.

–Tutoretza edo familia harreraren kasuetan, inguruabar hori egiaztatzen duen ebazpenaren kopia.

–Ikastetxearen ziurtagiria, alegatutako anai-arreba guztien datu pertsonalak eta matrikulatuta dauden ikasmila zehazten dituen.

a.2) Gurasoen edo legezko ordezkarien bizilekua edo lantokia gertu izatea (17. artikulua).

Lehentasunezko irizpide honen balorazioa 10, 2 edo 0 puntukoa izanen da, aipatutako 17. artikulua 1. puntuan ezarritakoari jarraikiz.

–Bizilekua egiaztatzeko, errolda ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da, eskaerak aurkezteko epea bukatu aurreko 90 egun naturalean emana; hartan jasota egon beharko du haurra eta guraso edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, udalerrri horretan erroldatuta daudela. Jaio gabeko haurren kasuan, gutxienez gurasoetako edo legezko ordezkarietako baten errolda ziurtagiria aurkeztu beharko da.

–Lantokiaren inguruabarra egiaztatzeko, zaintza eta jagoletza duen guraso edo legezko ordezkariaren lantokia non dagoen adierazten duen dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Besteren konturako langileek enpresaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dute lantokia, non agertuko baitira interesdunaren datu pertsonalak eta bere lantokiaren helbideari buruzko datuak. Lan bizitzari buruzko txostena ere aurkeztu beharko dute. Dokumentu horiek eskaerak aurkezteko ohiko epea agortu aurreko 30 egun naturalean emanak izan beharko dute.
- Langile autonomoei dagokienez, laneko helbidea egiaztatzeko, aurkeztuko dute indarrean dagoen irekiera lizentziaren kopia bat, dagokion udalak emana, edo jardueren aurretiazko jakinarazpena, bai eta lan bizitzaren txostena ere, eskabideak aurkezteko ohiko epea bukatu aurreko 30 egun naturalen barruan emana.

a.3) Familia-unitatearen per capita errenta (18. artikulua).

Aipatu 18. artikulua 4. puntuan ezarritakoari jarraikiz, irizpide honen balorazioa 3, 2, 1 edo 0 puntukoa izanen da.

Haurrak onartzeko ondorioetarako, familia-unitatearen kontzeptua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 71. artikuluan araututakoa izanen da:

"71. artikulua. Familia-unitatearen kontzeptua.

1. Zerga honetarako honako hauek dira familia-unitateak:

a) Legez bereizirik ez dauden ezkontideek eta, izanez gero, adingabeko seme-alabek osatua (gurasoen baimena izanda beraiekin bizi ez direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, ordezkartzako kuradoretzaren menpe dauden adin nagusiko seme-alabak.

b) Berariazko legeen arabeko bikote egonkor bateko kideek eta, izanez gero, adingabeko seme-alabek osatua (gurasoen baimena izanda beraiekin bizi ez direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, ordezkartzako kuradoretzaren menpe dauden adin nagusiko seme-alabak.

c) Legezko banantzeetan, edo ezkontzaren bidezko loturarik nahiz bikote egonkorrik ez dagoenean, aitak edo amak eta batarekin nahiz bestearekin bizi diren seme-alaba guztiek osatzen dutena, aurreko paragrafoetan aipatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

a), b) eta c) letretan aurreikusitakoaren ondorioetarako, tutoretza edo harrera bitartez subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak seme-alabekin parekatuko dira aplikatzekoa den legeria zibilean ezarritako moduan. Halaber, seme-alabekin parekatuko dira epailearen aginduz subjektu pasiboaren zaintza eta babesaren pean dauden pertsonak, aurrekoez bestelako egoeretan daudenak.

2. Inor ere ezin da aldi berean bi familia-unitatetako kide izan.

3. Familia-unitateko kideen kopurua urte bakoitzeko abenduaren 31n dagoen egoerari begiraturik zehaztuko da, familia-unitateko kideren bat urtean zehar hil bada salbu; izan ere, kasu horretan gainerako kideek baterako aitorpena aukera dezakete, hildakoaren errentak ere sartuta.

Aukera hori ez da bidezkoa ezkontideetako bat hil eta, urtea bukatu baino lehen, alarguna berriro ezkontzen bada".

–Onarpen baremoaren ondorioetarako per capita errenta kalkulatzeko, familia-unitatearen errenta izanen da errenta aitorpeneko likidazio oinarriaren edo oinarrien guztizkoa. Familia-unitatearen per capita errenta honela kalkulatu da: 2024. urteko zerga ekitaldiari dagokion guztizko likidazio oinarria, zati familia-unitatearen kide kopurua 2024ko abenduaren 31n (alegia, aitortzailea; ezkontidea edo bikotekide egonkorra; eta PFEZari buruzko foru araudiaren arabera kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten pertsonak).

–Honako hauek dira kontuan hartuko diren errenta tarteak, 2026ko martxoaren 6an indarrean den lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) arabera:

- LGSren erdia edo hori baino txikiagoa bada per capita errenta: 3 puntu.
- LGSren erdia baino handiagoa eta hiru laurdenak edo txikiagoa bada per capita errenta: 2 puntu.
- LGSren hiru laurdenak baino handiagoa eta soldata hori bera edo txikiagoa bada per capita errenta: 1 puntu.
- Per capita errenta LGS baino handiagoa bada: 0 puntu.

–Errenta maila justifikatzeko dokumentazioa honako hau da: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenaren fotokopia osoa, familia-unitateko kide konputagarri guztiena, 2024ko zerga ekitaldiari dagokiona. Aitorpena egiteko betebeharririk ez badago, egoera hori egiaztatzen duen dokumentazio ofiziala eta beste errenta edo diru-sarrera batzuk jasotzea justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dira. Azkenik, diru-sarreraren zinpeko adierazpen bat aurkezten ahalko da, egoera sozioekonomikoa akreditatzen duen txosten sozial batekin batera.

Gurasoek ez badute familia-unitate bat osatzen per capita errenta onarpen baremoaren ondorioetarako kalkulatzeko, eskatzailearen errenta mailak justifikatzeko emandako dokumentazioa hartuko da kontuan kalkulu hori egiteko.

a.4) Haurrak desgaitasuna izatea, edo haren guraso, legezko ordezkari edo anai edo arrebaren batek (19. artikulua).

Lehentasunezko irizpide honen balorazioa 2,5, 2 edo 0,5 puntukoa izanen da, aipatutako 19. artikulua 1. eta 2. puntuetan ezarritakoari jarraikiz.

Desgaitasuntzat hartuko da % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna ofizialki aitorturik badago.

Hura aitortzeko, honako agirietako baten kopia aurkeztu beharko da:

–Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMSERSO) edo dagokion autonomia erkidegoko organo eskudunak emandako ebazpena, ziurtagiria edo txartela.

–Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren (GSIN) ebazpena, ezintasun iraunkor osoagatik, ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsioduna dela adierazten duena.

–Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren edo Defentsa Ministerioaren ebazpena, lanerako ezintasun iraunkoragatik edo lanerako ezgaitasunagatik erretiro pentsioa esleitzen duena.

–Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako Departamentuko Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak emandako txartela, desgaitasun maila aitortzen duena, identifikatzeko baliozko dokumentu batekin batera.

–Desgaitasun hori egiaztatzeko beste edozein ziurtagiri ofizial.

a.5) Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatea (20. artikulua).

Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatearen egoera baloratuko da: bi inguruabarrak edo bietako bat gertatzen bada, 1 puntu, eta halakorik gertatzen ez bada, 0 puntu.

Irizpide hori baloratzeko, genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izaera aitortzen duen agiri ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.

a.6) Gurasoek edo legezko ordezkariak ikastetxean lan egitea (21. artikulua).

Gurasoetako edo legezko ordezkarietako batek ikastetxean lan egitea 0,8 punturekin baloratuko da. Puntuazio hori ez da metagarria izanen bi gurasoek edo legezko ordezkariak ikastetxe berean lan egiten badute.

Lehentasunezko irizpide hori baloratzeko, ikastetxearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, langilearen datu pertsonalak eta plantillan duen lanpostuari dagozkionak zehaztuta.

a.7) Legez familia ugariko kide izatea (22. artikulua).

Legez familia ugariko kide izatea 0,8 punturekin baloratuko da.

Irizpide hau baloratzeko, inguruabar hori egiaztatzen duen titulu ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.

a.8) Haurra familia-harrerako egoeran egotea (23. artikulua).

Haurra familia-harrerako egoeran egotea 0,8 punturekin baloratuko da.

Irizpide hau baloratzeko, harrera egoera formalizatu dela edo formalizatuko dela egiaztatzen duen agiri ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.

a.9) Familia gurasobakarra izatea (24. artikulua).

Haurra guraso bakarreko familiako kide bada, 0,8 puntu emanen dira.

Irizpide hau baloratzeko, inguruabar hori egiaztatzen duen titulu ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.

a.10) Erditze anizkoitzean jaioa izatea (25. artikulua).

Haurra erditze anizkoitzetik sortutakoa bada, 0,8 puntu emanen dira.

Irizpide hau baloratzeko, inguruabar hori egiaztatzen duen agiri ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.

b. Irizpide osagarria:

b.1) Gurasoen edo legezko ordezkarien lan egoera edo egoera akademikoa (26. artikulua).

Irizpide hau baloratzeko 1 puntu edo 0 puntu emanen dira, aipatu 26. artikulua 2. puntuan ezarritakoari jarraikiz. Hau baloratzeko, bi gurasoei edo legezko ordezkarietako bati dagokien dokumentazioa aurkeztu beharko da, familia gurasobakarraren edo zaintza eta jagoletza eskusiboa duen gurasoaren kasuetan izan ezik.

–Gurasoen edo legezko ordezkarien lan egoera lan bultzaren txostena aurkeztearen bidez egiaztatuko da. Txostenak eskaerak aurkezteko ohiko epea agortu aurreko 30 egun naturalen barnean emandakoa izan beharko du.

Gurasoetako batek dokumentazio hori aurkeztu badu dagoeneko "Lantokia gertu izatea" lehentasunezko irizpidea baloratzeko, dokumentazioa ez da berriz ere aurkeztu beharko, eta beste gurasoarena aurkeztea nahikoa izanen da.

–Eszedentzian egonez gero hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeko, inguruabar hori egiaztatzeko agiria aurkeztu behar da. Lan egoera aktibotzat hartzeko, zinpeko aitortzen bat aurkeztu beharko da, non adierazi beharko baita lanera itzultzea aurreikusita duela dagokion ikastetxeko ikasturtea hasi ondoko hilabete eta erdi igaro baino lehen. Epe hori igarota, ikastetxearen titularra den erakundeari aurkeztuko zaio lanera itzuli dela egiaztatzen duen agiria.

–Aipatu 26. artikulua 3. puntuan adierazten denaren arabera, ikasketa arautuak dira titulu akademiko ofizialak eskuratzera bideratuta daudenak: DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, unibertsitateko titulazioak eta abar. Ikasketei lehentasunezko dedikazioa ematen zaiela ulertuko da, baldin eta interesduna ikasturtean zehar matrikulatuta badago ikasturte oso bat osatzen duten

kreditu edo orduen % 80an gutxienez, kasuan kasuko ikasketa planaren arabera. Inguruabar hori egiaztatzeko, matrikularen egiaztatgiri ofiziala eta ikasturteko egutegia eta ordutegia aurkeztu beharko dira.

–Hala badagokio, gurasoetako edo legezko ordezkarietako bati ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsio bat dagokiela frogatzen duen agiria.

c. Hezkuntza premia bereziak baloratzeko egiaztatgiriak.

–Balorazio hori justifikatzen duten txostenak.

5.6. Alegatzen den egoerari buruzko egiaztatgiritik aurkezten ez bada, zero puntuazioa emanen da onarpen baremoan dagokion atalean.

5.7. Hautapen batzordeak eska dezake zuzendu daitezela interesdunek aurkeztutako dokumentazioan dauden akats formalak.

5.8. Egiaztatzen bada eskabidean edo erantsitako agirietan adierazitako datuak okerrak edo faltsuak direla, eskabidea baliogabetzen ahalko da, edo dagokion puntuazioa aldatu, eta, kasua bada, emandako ikaspostua kendu.

6.–Onarpen prozesu arruntetik kanpo geratzen diren eskaerak.

6.1. Haur berarentzat eskaera bat baino gehiago aurkezten bada, aurkeztutako azkena soilik izanen da balioduna eta bakarrik hori hartuko da kontuan; erregistratutako entrega-dataren eta - orduaren arabera zehaztuko da azkena zein den, eta aurreko eskaerak baztertuta geratuko dira.

6.2. Onartuen behin betiko zerrendak argitaratu aurretik nahitaezko dokumentazioa aurkeztu ez duten eskabide guztiak baztertuko dira, bai eta eskabidea aurkezteko unean jaio ez diren haurren eskabideak ere jaiotza eranskin honen 5.2 puntuan xedatutakoaren arabera egiaztatu ez bada.

6.3. Era berean, eskabideak bazter geldituko dira baldin eta hautapen batzordeak ikusten badu zantzu arrazoituak eta nahikoak daudela pentsatzeko interesdunek aurkeztutako dokumentazioa edo dokumentazioan jasotako datuak faltsuak direla.

7.–Ebazteko faseak (12. artikulua).

7.1. Eskabideak baloratzeko, lehen aukera gisa hautatutako ikastetxearen erakunde titularraren hautapen batzordeak Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 1eko 16/2024 Foru Aginduaren 16. artikulutik 26. artikulura artean ezarritako baremoa aplikatuko dio aurkeztutako dokumentazioari. Baremo hori ebazpen honen III. eranskinean dago jasota.

7.2. Lehentasunezko irizpideak baloratu ondoren berdinketarik gertatzen bada, aipatu 12. artikuluen 3. eta 4. puntuetan ezarritakoaren arabera ebartziko da.

7.3. Gurasoen edo legezko ordezkarien lan egoerari edo egoera akademikoari buruzko irizpide osagarria soilik aplikatuko da baldin eta berdinketak hausteko lehen aipatu 3. eta 4. puntuetako irizpideak aplikatu ondoren ere berdinketak bere horretan badirau.

7.4. Irizpide osagarria erabilia ere berdinketa mantentzen bada, zozketa publikoaren bidez ebartziko da. Zozketa publikoaren eguna aldeztu aurretik argitaratuko da Zerbitzuen Katalogoko

dagokion web-orrian. Zozketaren emaitza Hezkuntza Departamentuaren web-orrian argitaratuko da.

7.5. Familiek datuak, dokumentuak eta eskabideari behin-behinean dagokion baremoa kontsultatzen eta berrikusten ahalko dituzte behin-behineko zerrendak argitaratu aurretik. Datu horiek guztiak apirilaren 22tik 29ra artean kontsultatzen ahalko dira, bi egun horiek barne, bai telematikoki, Educa Atariaren bidez, bai aurrez aurre, lehen aukera gisa hautatutako ikastetxearen erakunde titularrak zehaztutako tokian.

7.6. Eskabidearen behin-behineko egoera horretan, interesdunek aukera izanen dute eman zaien puntuazioaren aurkako erreklamazioa aurkezteko eta/edo dokumentazioa zuzentzeko, apirilaren 23tik 29ra artean, biak barne. Horretarako, lehen aukera gisa hautatutako ikastetxearen erakunde titularrari zuzendutako eskabidearen bidez, erreklamazioa aurkeztu eta/edo dokumentazioa zuzentzen ahalko dute, hori justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztuta.

8.–Onartuen behin-behineko zerrendak.

8.1. Eskola bakoitzean, eskatzaileek puntuazio bat eskuratuko dute baremoa aplikatuta lortu dituzten puntuak batuta. Puntuazio horren arabera lehiatuko dira eta horrek zehaztuko du bakoitzak zer ordena duen onartuen zerrendetan eta itxaron-zerrendetan, ezertan galarazi gabe Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 1eko 16/2023 Foru Aginduaren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa.

8.2. Kontuan hartuz eskabidean zein ordenatan jarri diren eskolak, zer eskolari, hizkuntza ereduri eta eskolaldira eman zaion lehentasunik handiena, haurrari ikaspostua esleituko zaio lehentasun horietara hobekien egokitzen den eta haurra onartzeko modua duen eskola horretantxe.

8.3. Familia bakoitzak 2026ko maiatzaren 5ean kontsultatzen ahalko ditu, Educa Atariaren bidez, eskatutako eskola bakoitzean onartutakoen behin-behineko zerrendak. Behin-behineko zerrenda horiek eskolan bertan ere argitaratuko dira, eta eskolari berariaz dagokion informazioa baizik ez da argitaratuko zerrenda horietan.

8.4. Lehen aukera gisa hautatutako ikastetxean argitaratuko da nahitaezko dokumentazioa ez aurkezteagatik baztertutako eskabideen behin-behineko zerrenda.

8.5. Behin-behineko zerrendak jendaurrean jartzearekin batera, berariaz adieraziko da erreklamazioak, zuzenketak edo uko egiteak egin daitezkeela 2026ko maiatzaren 6tik 12ra bitartean, bi egun horiek barne.

8.6. Erreklamazioak, zuzenketak eta, hala badagokio, uko egiteak, lehen aukera gisa hautatutako ikastetxearen erakunde titularrari zuzendutako eskabidearen bidez egingen dira, eta hori justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da.

8.7. Ez da inola ere onartuko eskaerak aurkezteko epean aurkeztu ez den eta nahitaezkoa ez den dokumentaziorik, salbu eta dokumentazio horren formazko akatsak zuzentzeko bada.

8.8. Ikaspostuari uko eginez gero, eskabidean ageri diren eskaera guztiei uko egiten zaiela ulertuko da.

9.–Onartuen behin betiko zerrendak.

9.1. Familia bakoitzak 2026ko maiatzaren 15ean kontsultatzen ahalko ditu, Educa Atariaren bidez, eskatutako eskola bakoitzeko onartuen behin betiko lehenbiziko zerrendak eta itxaron-zerrendak. Behin betiko zerrenda eta itxaron-zerrenda horiek eskolan bertan ere argitaratuko dira, eta eskolari berriaz dagokion informazioa baizik ez da argitaratuko zerrenda horietan.

9.2. Haur bat eskola batean onartu dela ulertuko da onartuen behin betiko zerrendan agertzen denean. Haur bat 2025-2026 ikasturtean matrikulatutako eskola ez den beste batean onartzen bada, horrek berekin dakar, automatikoki, jatorrizko eskola horretan ikaspotua galdu duela 2026-2027 ikasturterako.

9.3. Behin betiko zerrendak erakunde titularraren organo eskudunaren ebazpen edo erabaki bidez onartuko dira. Ebazpen horretan adieraziko da behin betiko zerrenden aurka lehen aukera gisa hautatutako ikastetxearen erakunde titularraren aurka dagozkion errekursoak aurkezten ahal direla. Beharrezkoa izanez gero, erakunde titularrak beste hautapen batzorde batek egindako balorazioari buruzko txostena eskatuko du.

10.–Matrikula egitea (27. artikulua).

10.1. Haurren guraso-ahala duten gurasoek edo legezko ordezkariak onartuen behin betiko lehenbiziko zerrendetan dauden haurren matrikula egin beharko dute 2026ko maiatzaren 18tik 22ra bitartean, bi egun horiek barne.

10.2. Matrikula aurrez aurre egin behar da, haurra zein ikastetxetan onartu duten, haren entitate titularrak zehaztutako lekuan; eskatutako dokumentazioa eraman beharko da.

10.3. Matrikula egiteko honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

–Haurren Osasun Identifikazioko Txartelaren (OTI) fotokopia.

–Hala badagokio, familia-unitateko kide konputagarri guztien 2025eko zerga ekitaldiari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortenaren fotokopia, edo Hezkuntza Departamentuari kontsultatzeko baimena emateko aitortpena. Aitortpena egiteko betebeharririk ez badago, egoera hori egiaztatzen duen dokumentazio ofiziala eta beste errenta edo diru-sarrerara batzuk jasotzea justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dira. Azkenik, diru-sarreraren zinpeko adierazpen bat aurkezten ahalko da, egoera sozioekonomikoa akreditatzen duen txosten sozial batekin batera.

Agiri hori, beranduenez, 2025. urteko zerga ekitaldiari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortenaren kanpaina akitzen den egunean aurkeztu beharko da.

–Hala badagokio, ordainagiriak helbideratzeko banku entitateko kontu-zenbakiaren fotokopia, titularra eta zenbakia agertzen dituen.

–Kasua bada, dagokion kuota ordaindu izanaren egiaztatzea.

–Kasua bada, beharrezkoa den osasun informazioa, haurra behar den moduan zaintzeko.

–Kasua bada, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izandako jaiotzengatik familia-unitateko kideen kopuruan egondako aldaketa egiaztatzen duen dokumentazioa.

10.4. Matrikula ez bada ezarritako epean egiten, eskuratutako ikaspostua galduko da eta, haurra itxaron-zerrendaren batean egonez gero, horrek ekarritako eskubideak ere galduko dira.

11.–Aukera hobetzea eta matrikula egitea.

11.1. Baldin eta, eskabideak aurkezteko epe arruntean parte hartu ondoren, haurrak ikaspostua lortzen badu eskabidean lehen aukeran adierazitako eskola ez den beste eskola batean, matrikula egiteko unean, "aukera hobetzea" hautatzen ahalko da, dagokion ereduaren bidez. Une horretatik aurrera, baldin eta itxaron-zerrendaren batean bazegoen, hartan segitzen ahalko du.

11.2. Ez bada aukera hobetzeko prozedura hori baliatzen, haurra esleitu zaion eskolan matrikulatzean bertan behera geldituko dira beste itxaron-zerrendetatik eratorritako eskubideak.

11.3. Aukera hobetzea hautatuz gero, horrek esan nahi du haurrak aukera izanen duela beste eskola batean ikaspostua lortzeko, baldin eta eskola horri lehentasun handiagoa eman bazitzaion. Aukera hobetzea 2026ko ekainaren 12ra arte aplikatuko da, egun hori barne.

11.4. Hala ere, aukera hobetzeko prozeduraren bidez egiten den matrikula berri orotan, interesdunen esku egonen da etorkizunean aukera hobetzeko posibilitateei uko egitea edo aukera horiek atxikitzea.

11.5. "Aukera hobetzea" prozedura aplikatzearen ondorioz ikaspostu berri bat lortzen bada, interesdunak automatikoki galduko du aurretik esleitutako ikaspostua, eta matrikula berria egin beharko du horretarako adierazitako epeetan.

11.6. Matrikula ez bada adierazitako epe horietan egiten, lortutako ikaspostua galduko da eta, haurra itxaron-zerrendaren batean egonez gero, horrek ekarritako eskubideak ere galduko dira.

12.–Onartuen bigarren zerrenda.

12.1. Matrikula egiteko lehen epea bukatu, itxaron-zerrendan dauden eskatzaileei esleitu zaizkie hutsik gelditu diren ikaspostuak, puntuazio-hurrenkera zorrotzaren arabera.

12.2. Familia bakoitzak 2026ko maiatzaren 26an kontsultatzen ahalko ditu, Educa Atariaren bidez, eskatutako eskola bakoitzeko onartuen behin betiko bigarren zerrendak eta itxaron-zerrendak. Behin betiko bigarren zerrenda eta itxaron-zerrenda horiek eskolan bertan ere argitaratuko dira, eta eskolari berriaz dagokion informazioa baizik ez da argitaratuko zerrenda horietan.

13.–Matrikula egiteko bigarren epea.

13.1. Haurraren guraso ahala duten gurasoek edo legezko ordezkariak 2026ko maiatzaren 27an eta 28an matrikulatu behar dituzte onartuen bigarren behin betiko zerrendetan dauden haurrak.

13.2. Matrikularen bigarren epeari ere aplikagarri zaio eranskin honetako 10.2, 10.3 eta 10.4 puntuetan ezarritakoa, baita 11. puntuan ezarritakoa ere.

14.–Onartuen hirugarren zerrenda.

14.1. Matrikula egiteko bigarren epea bukatu, hutsik gelditu diren ikaspostuak esleitu zaizkie itxaron-zerrendan dauden eskatzaileei, puntuazio-hurrenkerari zorrotz jarraituz.

14.2. Familia bakoitzak 2026ko maiatzaren 29an kontsultatzen ahalko ditu, Educa Atariaren bidez, eskatutako eskola bakoitzeko onartuen behin betiko hirugarren zerrendak eta itxaron-zerrendak. Behin betiko hirugarren zerrenda eta itxaron-zerrenda horiek eskolan bertan ere argitaratuko dira, eta eskolari berariaz dagokion informazioa baizik ez da argitaratuko zerrenda horietan.

15.–Matrikula egiteko hirugarren epea.

15.1. Haurraren guraso ahala duten gurasoek edo legezko ordezkariak 2026ko ekainaren 1ean eta 2an matrikulatu behar dituzte onartuen hirugarren behin betiko zerrendetan dauden haurrak.

15.2. Matrikularen hirugarren epeari ere aplikagarri zaio 10.2, 10.3 eta 10.4 puntuetan ezarritakoa.

16.–Itxaron-zerrendak.

16.1. Matrikulatzeko hirugarren epea bukatutakoan, kasuan kasuko entitate titularrak kudeatuko ditu Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskola publiko bakoitzeko itxaron-zerrendak.

16.2. Itxaron-zerrendan dauden haurrak ikastetxean matrikulatzen ahalko dira baldin eta ikastetxean ikasposturen bat hutsik gelditzen bada eta puntuazio ordenari zorrotz jarraituta, beranduenez 2027ko otsailaren 12ra arte.

17.–Eskolan hastea.

17.1. Ikastetxean hasten ahalko dira 16 aste beteak dituzten haurrak, edo urte bat bete dutenak urtea bete ez dutenentzako instalaziorik ez dagoen eskoletan.

17.2. Matrikula eginda ere haurra ikasturtearen hasieratik eskolan ez hastea, betiere 16 aste bete ez dituelako bada, ez da baja-kausatzat hartuko, Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 1eko 16/2024 Foru Aginduaren 29. artikuluko b) letran ezarritakoari jarraiki.

18.–Bajak.

Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 1eko 16/2024 Foru Aginduaren 29. artikuluan adierazitakoarekin bat, inguruabar hauek baja ekarriko dute:

a) Gurasoek edo legezko ordezkariak baja eskatzea.

b) Haurra eskolan ez hastea ikasturtea hasi eta ondoz ondoko 15 egun natural iraganik, non ez dagoen horretarako arrazoi justifikaturik.

c) Behin ikastetxean hasita, ondoz ondoko 15 egun naturalean ikastetxera ez joatea.

19.–Ohiko epetik kanpoko eskaerak eta matrikulak.

19.1. Epe arruntetik kanpo, eskaera egiten ahalko dute: epe horretan onarpen eskaerarik aurkeztu ez dutenek edo lortutako ikasposturako matrikula egin ez dutenek.

Era berean, eskatutako aukeretako batean ere ikasposturik lortu ez duten eta beste aukera batzuk egin nahi dituztenek ere parte hartzen ahalko dute.

Eranskin honen 4.1 apartatuan aipatzen den eskabideak aurkezteko ohiko epea agortu ondoren bizilekua aldatzea justifikatzen duten eskatzaileek ere parte hartzen ahalko dute. Ondorio horietarako, bizileku aldaketa justifikatutzat hartuko da bizilekua beste herri batera aldatzea. Hori

egiaztatzeko, errolda ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta bertan haurra eta, gutxienez, guraso edo legezko ordezkarietako bat agertu beharko dira.

19.2. Ohiko epetik kanpo egindako onarpen eskabideak ikastetxearen erakunde titularrak ezarritako moduan eta lekuan eginen dira.

19.3. Onarpen eskaera berriak aurkezten ahalko dira erakunde titular bakoitzak zehaztutako egunetik 2027ko otsailaren 12ra arte, baldin eta haurrak 16 aste beteak baditu, edo urtebete, adin horretatik beherakoentzako instalaziorik ez dagoen ikastetxeen kasuan.

19.4. Haurrak onartzeko prozesu arruntean sortutako itxaron-zerrenda agortu ondoren ikaspostu hutsik badago, epez kanpoko eskaerak kontuan hartuko dira, eta sarrera-ordenaren arabera beteko dira, betiere eskainitako plaza onartzen bada, baremoa aplikatuta lortutako puntuazioa edozein dela ere. Ikaspostua esleitu ondoren, segituan eginen da matrikula eta berehala hasiko da haur eskolan.

19.5. Salbuespenez, aurkeztutako eskaeran emandako arrazoiak baloratu ondotik eta baldin eta erakunde titularrak egoki jotzen badu, kasuan kasuko ikastetxearekin koordinaturik, eta Hezkuntza Departamentuak ontzat ematen badu, haurrak matrikulatzen ahalko dira epe hori agortu ondoren ere.

20.–Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak (28. artikulua).

20.1. Hezkuntza premia bereziak dituzten hurrei hezkuntza-laguntzako baliabide espezifiko bat esleitu bazaie Hezkuntza Ekitaterako Baliabide Zentroko (NHEBZ) arreta goiztiarrerako taldeak egindako eskaera baten ondorioz, haur horiek ez dira zenbatuko, talde-ratioaren ondorioetarako, matrikulatuta dauden taldean edo matrikulatuko diren taldean.

20.2. Nafarroako Hezkuntza Ekitaterako Baliabide Zentroak (NHEBZ) geografikoki antolatuko du haur eskoletara sartzekoak diren eta hezkuntza premia bereziak dituzten haurren banaketa eta kokapena, behin haurrak onartzeko ohiko epea agortuta.

21.–Ikasleak onartzeko prozedura berezia.

21.1. 2026-2027 ikasturtean, haurrak onartzeko prozedura berezi bat hasten ahalko da ikastetxe berrietarako edo diren ikastetxeetan unitate gehiago izateko, betiere abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Aginduaren 4.6 artikuluan ezarritakoa errespetatuz.

21.2. Ikastetxe berririk sortuz gero, horretarako eraturako hautapen batzordeak, Hezkuntza Departamentuari jakinarazi ondoren, honako hauek zehaztuko ditu: eskabideak aurkezteko epea, behin-behineko eta behin betiko zerrendak argitaratzeko egunak, eta erreklamazioak jartzeko eta matrikulak egiteko epea.

II. ERANSKINA.–2026-2027 IKASTURTEAN HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOAN ONARTZEKO PROZEDURAREN EGUTEGIA

Jendaurreko zozketa Hezkuntza Departamentuan (bakarrik erabiliko da izan daitezkeen berdinketak ebazteko)	Eguna aldez aurretik argitaratuko da zerbitzu katalogoaren dagokion web-orrian
Eskaerak aurkezteko epea	Otsailaren 23tik martxoaren 6ra
Eskaeren behin-behineko egoera (ikusgai)	Apirilak 22
Behin-behineko egoeraren aurkako erreklamazioak eta/edo zuzenketa	Apirilaren 23tik 29ra
Behin-behineko zerrendak argitaratzea	Maiatzak 5
Erreklamazioak	Maiatzaren 6tik 12ra
Jaiotza-ziurtagiria aurkezteko epearen azkena (2026ko martxoaren 7tik maiatzaren 11ra jaiotakoak)	Maiatzak 12
Behin betiko lehenbiziko zerrenda argitaratzea	Maiatzak 15
Matrikula egiteko lehenbiziko epea	Maiatzaren 18tik 22ra
Behin betiko bigarren zerrenda argitaratzea	Maiatzak 26
Matrikula egiteko bigarren epea	Maiatzak 27 eta 28
Behin betiko hirugarren zerrenda argitaratzea	Maiatzak 29
Matrikula egiteko hirugarren epea	Ekainak 1 eta 2
"Aukera hobetzeko" epearen azkena	Ekainak 12
Itxaron-zerrenden indarraldiaren azkena	2027ko otsailak 12

III. ERANSKINA.–HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO ONARPEN PROZESUKO BAREMOA

Ikus taula osoa

LEHENTASUNEZKO IRIZPIDEAK	PUNTUAK
Anai-arrebaren bat ikastetxe horretan matrikulatuta egotea	Gehienez 3
<p>Gurasoen edo legezko ordezkarien bizilekua edo lantokia gertu izatea.</p> <p>Udal titulartasuneko ikastetxeetan:</p> <p>–Haurra eta, gutxienez, gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat erroldatua egoteagatik eskaeraren xedeko ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoaren barneko udalerrri batean (horretarako akordioa ezarria duten udalerrietan).</p> <p>–Gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, lanean aritzeagatik eskaeraren xedeko ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoan.</p> <p>Hezkuntza Departamentuaren titulartasuneko ikastetxeetan:</p> <p>–Haurra eta, gutxienez, gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat erroldatua egoteagatik Nafarroako Foru Komunitateko udalerrri batean.</p> <p>–Gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, lanean aritzeagatik Nafarroako Foru Komunitateko udalerrri batean.</p>	<p>Gehienez 10</p> <p>10</p> <p>2</p> <p>10</p> <p>2</p>
<p>Familia-unitatearen per capita errenta.</p> <p>–LGSren erdia edo hori baino txikiagoa.</p> <p>–LGSren erdia baino handiagoa eta hiru laurdenak edo txikiagoa.</p> <p>–LGSren hiru laurdenak baino handiagoa eta soldata hori bera edo txikiagoa.</p> <p>–LGS baino handiagoa.</p>	<p>Gehienez 3</p> <p>3</p> <p>2</p> <p>1</p> <p>0</p>

<p>Haurrak desgaitasuna izatea, edo haren guraso, legezko ordezkari edo anai edo arrebaren batek.</p> <p>-Ikaspostua eskatzen duen haurrak desgaitasuna badu.</p> <p>-Ikaspostua eskatzen duen haurraren gurasoren edo legezko ordezkariaren edo anai-arrebaren batek desgaitasuna badu.</p>	<p>Gehienez 2,5</p> <p>2</p> <p>0,5</p>
<p>Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatea.</p> <p>Bi inguruabarrak edo bietako bat gertatzen bada.</p>	<p>Gehienez 1</p> <p>1</p>
<p>Gurasoek edo legezko ordezkariak ikastetxean lan egitea.</p> <p>Gurasoek edo legezko ordezkariak ikastetxe horretan lan egiten badute.</p>	<p>0,8</p>
<p>Legez familia ugariko kide izatea</p>	<p>0,8</p>
<p>Haurra familia harrerako egoeran egotea</p>	<p>0,8</p>
<p>Familia gurasobakarra izatea</p>	<p>0,8</p>
<p>Erditze anizkoitzean jaioa izatea</p>	<p>0,8</p>

Ikus taula osoa

<p>IRIZPIDE OSAGARRIA</p> <p>(Kontuan hartuko da, bakar-bakarrik, baldin eta berdinketa mantentzen bada, Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 1eko 16/2024 Foru Aginduaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera)</p>	
<p>Familia orokorrak.</p> <p>Bi gurasoak edo legezko ordezkariak honako egoeretako batean badaude: lanean eta Gizarte Segurantzari alta emanda, lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketak egiten (dedikazioak behar bezala justifikatuta egon beharko du) edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan.</p>	<p>1</p>
<p>Guraso bakarreko familien kasuan edo guraso bakarreko familia izan gabe zaintza eta jagoletza eskusiboa duen gurasoaren kasuan.</p>	<p>1</p>

Gurasoa honako egoeretako batean badago: lanean eta Gizarte Segurantzaren alta emanda, lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten (dedikazioak behar bezala justifikatuta egon beharko du) edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan.

Iragarkiaren kodea: F2600970